BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

339n. zenbakia

2008 bagilla

ZER

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

LURRA, EGUZKIA TA ILLARGIA

Eguzkia, urra ta beste izarbelak big-bang'etik 10.000 milloi urte geroago sortuak dira.

Big bang zer dan?

Gaur agiri diran izar eta antzekoak sortu baiño lenago, asieran, dana zan bola edo obo bat, aundia benetan, or batu ziran lenagoko onda baiezkorrak eta ezekorrak atomoak osotu ondoren, oboe ikaragarri bat osotzen ebela.

Une baten big bang unean, obo oro lertu egin zan eta millaka zatitan banandu. Zati oneik dira izarrak euren laiñoetan eta moltzoetan. Mundu osoa doa, gaur be bai, ardatz orretatik iges egiten.

Ori jazo eta 10.000 milloigarren urtean, euren lekuetan kokatu ziran eguzkia (au izar txiki bat da) eta bere inguruko izarbelak eta abar.

4.500 milloi urte dira eguzkia biztu zala eta biraka dabillela eta beste orrenbeste urtetan ibilli leitekela uste da.

Eguzkitik zati batzuk banandu egin ziran eta bere inguruan biraka asi. Oneik dira izarbelak edo planetak eta lurrari be zati bat urrindu jakon eta au da illargia, izarbel-ondo edo satelitea.

Beste zati batzuk ez eben bide bardiña artu eta batzuk kometa eta txikiagoak asteroide biurtu ziran. Oneik ziran izarbelak sortu eta gero agertu ziran ondakiñak.

Pluton, esaterako, eguzkitik 5.900 milloi km.'ra dago.

Eguzki-inguru guztiak 15 billoi km. dauz eta orreik argi-urte bi diran.

Bazter-bazterrean Oort laiñoaren ertza dago eta oneik billoiak kometak daukoz.

1950n. urte-inguruan aurkitu eban erlautz ori Jan Hendrik Oort'ek eta orra eltzeko bidea, urren daukagun izarraren erdia da (Alfaren Zentauro'ra eltzeko dagon bidearen erdia) eta au 4,3 argi-urtera dago.

Kepler izan zan izarbelen legeak ondo azaldu euskuzana: Bideak edo orbitak, ez dira obo utzak, eliptikak dira eta eguzkitik urrean dagozenean bizkorrago dabiltz.

EGUZKIA

Esne-bide edo Via Lakteak dituan 200.000 milloi izarren artean bat da eguzkia.

Gugandik urren dagoana (lurretik 150 milloi km.), urrengo izarra, Zentauro'ren Alfa da eta 4,3 argi-urtera dago. Oneik dira 41 billoi km.

Eguzkiaren diametroa 1.392.000 km'koa da (lurrarena 12.756 km. baiño ez).

Eguzkian dagoan beroa 5000°koa da azalean, baiña barruan 15 milloi gradukoa.

Eguzkiaren adiña, gaur arte izan dan denporea, 5.000 milloi urtekoa da eta bere bizitzearen erdian dago orain. Orregaitik beste 5.000 milloi urtean biziko da.

Eguzkiari ez jako iñoz begiratu bear teleikuskiñagaz zuzenean, eta begi utsez be ez, begiko retina edo saretxuari kalte aundia egiten dautso, filtro edo irastontzi bat erabilli bear da beti, baiña oba da teleikuskiñaren irudiak pantailla beten ikustea.

Arlo onetan zalea dana asko poztuko da eguzkiaren mantxak ikusita: Illununeak dira eta ez dira inguruaren bestean beroak. Mantxa orreik gure giroa edo klima aldatzen dabe eta 11 urterik 11 urtera aundi edo txiki egiten dira. Oneik aztertzeko ardatz-etxea Brusela'n dago eta ara bialdu bear dira albisteak.

Fakulak esaten jake eguzkiak dauzan argi-uneai eta mantxen inguruan dagoz.

Protuberantziak eta fulguratzeak dira beste jazokizun batzuk eguzkian.

ILLARGIA

Illargiaren diametroa 3.476 km.'koa da eta andik lurrera bidea 384.000 km.'koa.

Eguzkiaren urrengoa da guri argia emoten.

Itxas gorabeerak illargiak sortzen dauz, eguzkiak eta berak bien artean dauken erakar-indarragaz.

Illargiak ez dauko bere argirik, eguzkiarena artu eta guri bialtzen dausku.

Lau faseak ezagunak doguz eta eguzkiak nondik argi egiten dautson ikusita jakiten dira: Barria, ilgora, osoa eta ilbera.

Illargiaren illeak 29 egun eta 12 ordu eta 44 minutu daukaz.

Beti aurpegi bat erakusten dausku, denpora bardiñean egiten daualako bira edo "rotaziñoa" eta bidea edo traslaziñoa eta eguzkia inguratzeko urtebete bear dau.

Iretargi betea urrutikuskiñez ikusita, arrigarria da: Kraterrak, itxasoak (ez dira urezkoak, leun-uneak baiño) medikateak eta zuloak. Itxasoak edo leuna dira 1/7 eta kolore nabar edo grisa dauke, ederrena Mare Imbrium mendiz inguratua da. Bitarte batetik urten eta Mare serenitatis'era goaz eta emendik Mare tranquilitatis'era. Emen jatsi zan 1969n. urteko uztaillaren 20n. egunean Apolo XI.

1959n. urtera arte ez genkian illargiaren atzekoaldeari buruz ezertxu be, baiña urte orretan Luna III'ek ekarri ebazan irudiak: Askoz menditsuagoa da, meteorito geiago artu dauz lurra ez dagoalako bitartean. Latzagoa da.

Ikusten doguzan krater'ak meteorituen golpeak dira eta aundienak 292 km'ko zabalerea dauka.

Errezen ikusten dan izarra da, baiña gitxi dira bere aztertzailleak. Noizean bein argi-uneak ikusten dira bertan. Zer dira? Bertako lur-ikarak, antza, edo meteoritoren batzuk.

OLAZAR´tar Martin´ek

BITORIA´KO FRANTZISKO

Euskaldun aundi ta ospetsuen artean bat, Bitoria´ko Frantzisko dogu: Laterri-arteko zuzentzaren sortzaillea.

Jakiña da Ameriketan españatarrak, urre-goseak bultzatuta, okerkeri ikaragarriak egin ebezala.

Orrein aurka jagi zam, an bertan, frai Bartolome de las Casas eta onen bidetik jokatzen eben an ebiltzan euskaldunik geienak. Baiña legeak ziran aldatu-bearrekoak.

Salamanka´ko Ikastetxe Nagusian irakasle euskalduna zan Bitoria´ko Frantzisko eta onexek artu eban lan aundi ori eta liburu batzuk idatzi ebazan "Relectiones de indis" idazpuru ebela. Oneixek dira Laterriarteko Zuzentzaren sortzailleak.

Zer aldarrikatzen eban?

Ameriketako inditarrak euren eskubideak eukezala, bai osasuna zaintzeko, bai lana egokiro egiteko eta bai euren buruen jabe izateko..

Asko oberatu zan, Erregearen aginduz, inditarren bizierea eta aberri guztien eskubideak zaintzeko or geratu zan oiñarri sendo bat.

OLAZAR´tar Martin´ek

Salamanka: San Esteban Bitoria'ko Frantziskoren irudia.

EUSKERAZALEAK

Maiatzaren 8'an egin gendun batzarra araudi barria onartzeko, baiña aldakuntzak agertu ziran. 8'tik 18'ra artuko dira aldakuntzak araudira sartzeko eta gero batzarra egingo da araudi barria onartzeko

Batzar Nagusi Bereizia: 2008-06-12
1.º Deia: 7½etan
2n. Deia: 8'00etan

El 8 de mayo celebramos la Asamblea General Extraordinaria para aprobar el nuevo reglamento conforme al modelo de Eusko Jaurlaritza, pero se presentaron algunas enmiendas. Se decidió que entre el 8 y el 18 de mayo se recibirían nuevas enmiendas que se incluirían en el nuevo reglamento y se aprobaría definitivamente en una nueva Asamblea General Extraordinaria, por lo que nos reuniremos en

Asamblea Extraordinaria el 12-06-2008
1.ª Convocatoria: 7½ h.
2.ª Convocatoria: 8'00 h.

EUSKERAZALEAK
LENDAKARITZA

BASERRIA GORATZEN

Aspaldion langintzak (industriak) artu dau indarra Euskalerrian, baiña ori ez da euskaldunen bide zaarra. Egia da langintza-aurreko oleak indar aundia izan ebela meaztegietatik burdiñea aterateko eta Europa osora oparo burdin ori saldu zala, eta ortik sortu zala ikazkintzaren lana be, baiña gure lana abereak aztea eta soloak lantzea izan da, baserriko lana, eta baserrian zaindu dira euskerea ta sendia, sendiagaz gure errigintzako erakunde zarra, Gernika'ko Batzarrak.

Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak gai asko azaldu ebazan gure osokuntzarako eta euron artean 210n. gaia (1992): "Antología del caserío". Aztertu dagigun gai au.

***

Baserriari buruzko elertia edo literatura da gai au eta arlo orretan diran idazkirik garrantzitsuenak batzen dauz, itz lauz nai itz neurtuz eta or aurkitzen dauz baserriaren teoria, teknika, lutelestia, antolaketa ta abar. Margolariak gaia zelan agertu daben be erakusten dau.

***

Ikusi dagigun lenengo baserriaren etxeak elertian izan dauan ikutua.

Mendietatik ikusten diran etxez jantzitako ibarrak ederrak dira eta baserri orreik zaindu egin bear doguzala, argi dago: urteetan or egon dira millak baserriak, batzuk gaur konpondu-bearrekoak. Batzutan arkitekto edo etxegin on baten lanak dirala dirudi.

Baserri bakoitxak etxeko jaun bat dauka, maitekiro andreak laguntzen dautsola. Or dago gure Lege Zarren oiñarria! Eta lege zarrak itzaltasun aundia dautso baserriari. Toki orretara sartzea zearo debekatuta dauke agintariak be.

***

Idazle askok goratu dabe elertian baserria.

Karmelo Etxegarai'ko esana da, antxiñatik gure gizaldi euskaldunak bizi izan dirala lur bedeinkatu onetan eta isuri dabela euren izenordea.

Arturo Kanpion napar aundiak ondo goratzen dau atxartean dagoan "borda" eta pagadien usain gozoa. Gure landak lorategiak dira, loren lekuan andra ederrak agiri dirala. Or txoriak, murmurdun errekak, aize zaratatsuak, be-laiñoak... dana balsamo-antzera.

Juan Antonio Mogel'ek ezin obeto goratzen dau, maixu Juan'en berbakaz baserria, lenengo elebarria dogun bere "Peru Abarka"n, landa-artean dagoan Landeta baserria aintzalduz.

Telesforo Aranzadi'k baserriaren lanabesak goratzen dauz Dima errian.

Bonifazio Etxegarai'k "Cuadros euskaros" liburuan baserritarren "betekada "k aitatzen dauz, irudien jatorduen antzekoak dirala esanda, baiña baserritarrak orreri izen bat ezarri dautsoe: Ezteguetako jatorduak.

Azkar idazten dau Unamuno'k: Euskal ikuspegian dana dago urrean, lurra ikusten da geiago zerua baiño, txori abiak dirudie etxeak.

Joakin Zuazagoitia'k "Forudium Arkadia" aitatzen dausku. Frantziskio Labaien'ek "Estampas euskaras" liburuan agertzen dau gorespen ori: Baserri asko uso zurien antzekoak dira. Orma zarrak eta onein gaiñean auntzorria ugari eta barruan eskatza, iru edo lau lo-gela, salatxu bat eta kortea. Kanpoak intxaur-landarea eta inguruko lurrak, barruan sendi bat eta lanak ugari. Bizi daitela gure baserria!

Ez aiztu etxea Arratian ez dala beste lekuetakoaren modukoa: An goian dagoz gizakiak eta azpian abereak. Oneik etxea berotzen dabe. Eta teillatua iru uretara dago.

Artetxe'tar Jose'k artzaiña dau lagun eta igandeetan soloak eta landak ikustera doa.

Migel Pelai Orozko'k auxe diño: Euskalerriaren izaerea aztertzeko, lenengo baserria ikusi bear dogu. Baserritarrak zaindu dabe euskerea, pentsaerea, mitoak eta edesti zarrak.

K-Toño Frade'k Bilbao'n Kaputxinoen inguruan egoan baserria gogoratzen dau. Etxe ori an egoan lekaideak etorri ziranean, baiña orain gomutakia baiño ez daukagu.

Jose M.ª Buska Isusi"k txakoliña gogoratzen dau baserrian.

Manuel Irujo'k diñoana be gogoangarria da: Sendi euskaldunen alkartasuna baserriak sortu dau eta ortxe iraun dau.

I Karlos'en aurrean Benezia'ko enbaxadore izan zan Andrea Navagger'ek diño 1528n. urtean Bizkaia'n ibillaldi bat egin ondoren: Emen baserri asko dagoz eta orreitan bizi dira euskaldun leiñargiak eta gauza ziurra da españatarren ustez leiñargitasun benetakoa Euskalerria'n dagoala.

Baserria zelan sortu zan esateko Iturriza'tar Juan Ramon dogu gogoan: "Lenengo euskaldunak mendigaiñeetan bizi ziran. Asko dira olako azterketak egiten dabezanak. Jakiña da baserria ez dala besterik leizetako bizikerea kanpoaratzeko era bat baiño.

Humboldt 1821n. urtean esan eban: Auñamendi-alde bietan, mendi-artean ezkutauta lez erri bat bizi dala, gizaldietan bere izkuntzaz eta oiturakaz.

Amaia elebarria idatzi eban Nabarro Billoslada'k be aitatzen dau olako zerbait.

Aranzadi'tar Engartze'k au diño: Baserriak itxura baten ez dau asko balio, teillak, orma zarrak, etxe zarra, auntzorria ugari ormetan, eta barruan eskatza, iru lo-gela, sala bat, etxegaiñea ta kortea. Baiña or gure erria sortu da.

***

Olerki arlora sartzeko Elizanburu'rena dan olerki-abesti zarra gogoratuko dogu:

Ikusten dozu goizean,
Eguna argitzen danean,
Menditxu baten gaiñean,
Etxe zuritxu
Txiki polita
Aitz aundi biren erdian,
Iturritxo bat aldean,
Txakur zuri bat atean,
Antxe bizi naiz bakean.

Eta orain baserria goratzeko olerkiak daukaguz aurrean, 27 guztiz, baiña erderaz datoz eta emen amaitzen dogu idaz-lan au.

OLAZAR´tar Martin´ek

KOBADONGA TA PINA'KO DONIBANE

Arabiarrak oso errez sartu ziran erdi-ugarte onetara. Sarreran izan gendun zer-ikusia euskaldunok: Bisigoten azkenengo erregea izan D. Errodrigo euskaldunakaz gudan ebillan albiste ori artu ebanean (Betiko leloa. "Domuit vascones" bete bear!) eta ariñeketan joan zan egoaldera. Bere gudarostea oso makalduta itzi eben euskaldunak eta errez galdu eban Guadalete'ko gudaldia.

Arabiarrak laster egin ziran erdi-ugarte osoaren jabe. Toki bitan moltzotu ziran iparralderantza iges etorri ziranak: Kobadonga'n erdi-euskalduna zan D. Pelaio'gaz eta Pina'ko Dinibane eritxon monastegian euskalerrira etorri ziranak.

D. Pelaio'ren ezaugarria dogu Irabazleen kurutzea.

Pina'ko Donibane monastegia zan, orduan Euskalerrian ain ugariak ziran monastegien buru. Aldi aretan izkilludunak eta monjeak alkartzea sarritan jazoten zan. Ortik sortu ziran gero "Kurutzedunak" eta erdi-gudari erdi lekaide ziran tenplarioak.

Ez uste izan, irakurle, Peña berba orren aitza esan gura dauala. Ez da Peña'ko Donibane, "Pina'ko Donibane" baiño. Gero aldatu zan "Peña" "Pina"ren ordez.

Baiña zer iza leiteke "Pina" ori?

Koraminas'en ustez gotorretxeak gaiñean dituan arrietariko bakoitxari deritxo "pina".

Baiña ez dauko zer-ikusirik lerrondo edo erderazko "pino"gaz be. Ba-dagoz Euskalerrian Pinuaga eta antzeko abizen zarrak eta pinu dagoan lekua esan nai dabe. Pina zer dan jakin bagerik geratzen gara.

Gaur be an dago Pina'ko Donibane monastegi ederra, Jaka'tik urrean. Orregaz alkartu ziran orduan Euskalerrian ugariak ziran monastegiak, Donibane'gaz batera arabiarren aurka guda egiteko.

OLAZAR´tar Martin´ek



Garaipenaren kurutzea (P. Pelaio).

OARRA

Irakurleren batek nai ba'dau Aita Santi'ren DVD edo Umandi'ren gogo-iztegiaren CD'a, eskatu begi "Euskerazaleak Alkarte"ra Colón de Larreategi 14, 2.a, eskoia - 48001 Bilbao edo 94 423 53 22 - 94 475 96 63 (Karmele)

AZTAKI TA NEURKI ZARRAK
(Pesas y medidas antiguas)

Amarkako zenbaketa edo "sistema métrico decimal" sartu-aurretik beste astaki eta neurki batzuk erabilli doguz, orain Inglaterra´n yarda edo galon erabilten diran antzera. Aztaki eta neurki oneik ez ziran bardiñak Euskalerria´n, Naparroa´n eta eta Aragoi´n edo Gaztela´n. Gaiñera Euskalerria´ren barruan be ez lurralde guztietan. Orrelan ez zan gauza erreza salerosketak egitea. Begiratu dagiogun mundu nastetsu oneri. Geuk ezagutu doguzan aztakiak eta neurkiak azalduko doguz.

GAZTELAKOAK

Alfontso Jakitunaren zazpi partidetan agiri dira.

Bidea neurtzeko oiñatzak, pausuak eta "pasada" agertzen dira, eleizetako illerriak neurtzeko, albo bakoitxean 40 pasada eleizea katedrala edo lekaide-etxea izan ezkero eta 30 pasada parrokia danean. Pasada bakoitxa gizon eldu baten bost oin izango da eta oin bakoitxak 15 atz edo "dedo" eukiko dauz.

Iru begada legua bat dira, legua 3 000 pausu dala.

Aztaki ta neurki okerrak apurtzeko agindua emoten dau erregeak eta ori egin-ezean 1 000 marabediko zigorra.

Oneik dira Gaztela´ko aztakiak eta neurkiak:

– Kolonia´ko markoa: 8 ontza.
– Tria´ko markoa edo teilla: 8 ontza.
– Librea: 12 ontza (Toro´n 1369, 16 ontza).
– Arroba:25 libra.
– Kintala:100 libra, orioa danean 10 arroba edo 250 libra.
– Erraldea: 4 libra.
– Anegea:12 zelemin.
– Kantarea: 8 azumbre.

Eunak neurtzeko barea.

1348n. urtean onartu ziran neurri oneik Gaztela osorako, Gipuzkoa ta Araba barru dirala.Bizkaia 1379n. urtean sartu ziran eta XVI,XVII,XVIII gizaldietan balioko izan ziran.

1801n. urtean eldu ziran neurki oneik euren erpiñera, IV Karlos erregearen aginduz eta España osorako. Naparroa´n onartu zan ori, baiña ez Esukalerria´n, forubaimena ukatu jakelako.

1790n. urtean Frimario illearen 19n. egunean Frantze´n amarkako bidea artu eben. Urrengoa ori egiten España izan zan eta onelan geratu ziran:

– Oiña (pie)=16 atz (dedo).
12 pulgada edo erkero.
– Pulgada (erkeroa): 12 linea.
– Bara: 3 oin.
– Legua:ordu bateko bidea, 20 000 oin.
– Estadal: 4 bara edo 12 oin.
– Abantzada: 20 estadal, lautuak 400 estadal.
–Fanega: 24 estadal,lautuak 576 estadal.
12 zelemiña, bakoitxak lau lauren.

GARAUAK NEURTZEKO:
Kahiz= 12 anega, eta anegeak 12 zelemin.

ISURKIAK NEURTZEKO:

– Kantarea edo arrobea
– Azumbrea, kuartillua, kopea.
– Moyoa: 16 kantara.

ORIOA NEURTZEKO:

(Orioa aztatu egiten da ez neurtu)
– Arrobea.
– Librea.
– Keiarleroia..

AZTAKIAK:

– Librea: sei ontza.
– Kuarteroia.
– Ontzea.
– Drakma: ontzearen 1/8 edo 16 adarme
– Adarmea:Iru tomin.
– Tomiña: 12 garau.
– Arrobea: 25 libra.
– Kintala:4 arroba.

ALDAKUNTZAK NAPARROA´N

Aztakiak:Danean tria,librea: 12 ontza, urria ta zidarra diranean 8 ontza. aragirako danean 36 ontza, arroba 36 libra, kintala 120 libra, libra, arraiña danean 18 ontza

Neurkiak:Kodo:Aragoi´ko bara lez, garauetarako "robo" eta onek kuartalak eta almud´ak. Ixurkietan Kantarea, pinta eta pinta-erdia.

ALDAKUNTZAK ARABA´N

Emen aldakuntza gitxiago dago eta dana da Gaztela´n lez., baiña kantarea 16´365 litro. Soloetan anegea 55´5 edo 576 estadu,660 estadal, estadal bakoitxak 7 oin.

ALDAKUNTZAK GIPUZKOA´N(1696):

Kintala burdiñea danean 150 libra.
Zegama´n: Kintala 150 ontza geiago 150 libra baiño.
Anegea Gaztelan lez.
Librea: 17 ontza.
Sel edo Kortabasoa:1583n. urtean agertzen da, biribilla

da eta 72 gorabilla da bere ingurua, radioa 12 gorabilla, erdian munarria.

Isurkiak:

– Arroba: 5 azumbre, bakoitxak 5 libra.

– Sagardaoa danean:Karga edo 50,60 naiz 65´5 azumbre

– Bara:iru oin, 12 pulgada edo erkero.

– Legua:20 000 oin, Gaztela´n lez.

LURRA NEURTZEKO:

– 5 Yugada:70 postura edo 7000 ukondo lautu edo 28 000 oin lautu.

ALDAKUNTZAK BIZKAIA´N

– 1452n. urteko lege idatzian:Kintal burdiña bakoitxeko 16 diru zor jaunari.144 libra, bakoitxa 16 ontzakoa.

– 1576n. urteko lege barrian: Braza. Solotik zugatzetara 12 braza aritzak ba´dira, 6 braza sagarrondoak ba´dira, besteak 1 ½ braza.

– Errotetan:Anega´ko bost libra saria, ez geiago.

– Meatza:Barkada dira 130 kintal baiña 150 bear dauz eta oneik 155 libra bakoitxak.

– Gaztañak: XVIII gizaldian asko egoan, gero gaisoa etorri zan.

1716n. urteko batzarrean anegea, 16 zelemiña.

– Intxaurrak: bardin.

– Gatza: bardin.

Luzetarako: Bara Gaztela´n lez, Oiña, erkeroa, linea, punto: Bardin.

– Itxasoan:Legua,milla,braza,cable edo kodo.

Jarraian iztegia dator izen guzti oneikaz, baiña esandakoagaz naikoa dala uste dot.

OLAZAR´tar Martin´ek

KAROLUS AUNDIA TA EUSKALDUNAK

Erroldan'en eriotza Orreaga'ko gudaldia (Museo París, Biblioteka-Arsenal)



Karolus Aundia edo Karlomagno enperadore aundia izan zan eta bere menpean euki eban Iparraldeko Euskalerria frankoakaz batera. 800n urtean ipiñi eutson Aita Santua´k Sartadeko Enperadorearen burestuna edo koroia.

Erdi-Ugarte onetara etorri zan bein Zaragoza´n sartu ziran arabiarren aurka guda egiteko, baiña okerkeri aundi bat egin eban Iruña´n Zaragoza´rantza joiala: Iruña´ko arresia zapuztu egin eban.

Bere gudaldia arabiarren aurka amaitu ebanean, etxera biurtukeran Auñamendia igaro bear izan eban. Gudarostea ondo joan zan, baiña atzekoaldean joiazanai eraso egin eutseen euskaldunak Orreaga edo Ronzesballes´en, mendietatik arriak botata eta gudarostearen zati on bat zapuztu eben, euren artean Erroldan gudalburu ospoetsua. Ortik sortu zan "Erroldan´en abestia" deritxon olerki zaarra ta ospetsua.

Karlomagno´ri irabazte ori gure edestian gogoangarri biurtu zan euskaldunentzat.

OLAZAR´tar Martin´ek

JASON ETA URREZKO ARTULEA (Vellocino) (Erroma)

Arito batek urrezko artulea edo lanea eukan. Egoduna zan eta ibilli be aidean ibilten zan.

Jupiter'eri eskiñia zan, inguruko guztiak abere sakratutzat euken.

Bein baten mutiko bat eta keslatilla bat, errege baten seme-alabak, amaorde bategandik igesi joiazanak eroiazan egodun aritoak bizkarrean aidean eta neskatillea ito zan lekuari Mutilla barriz, Tesalia'ra eldu zan bizirik eta Jupiter'eri eskerrak emoteko erail eban aritoa.

Aritoaren urrrezko artulea bertako erregea zan Eetes'eri eskiñi eutson ondo lagundu eutsolako.

Marte'ri eskiñia zan Kolokida'ko baso bateko zugatz baten eskegi eban urrezko artulea Eetes erregeak. Eta gau ta egun zaintzen eban artule ori Mamutzar batek eta lo be begiak zabalik egiten eban onek eta zugatz aretara urreratzen ziran guztiak iruntzi egiten ebazan.

Sasoi beratan Tesalia'n, beste lurralde baten, Pelias zan errege-ordeko eta urrezko artule ori beragandu nai eban onek. Eta erregetza egokion Jason baztertuta bera egoan erre-orde lez agintzen.

Pelias bildur zan laster errege-ordetza galdu eta Jason errege ipiñi bearko ebalako. Orduan zer egin jakiteko, aztu bategana joan zan eta onek erantzun laburra emon eutson: "Oiñetako bakardun batek ekarriko dautzu zoritxarra. Kontuak atera a datorrenerako".

Egun baten agertu zan Jason sasoiko gizona jauregian eta dardaraz aidean jarri zan Pelias ikusi ebanean. Izan be Jason'ek oiñetako bakarra ekarren, ibaia igarokeran bestea galdu ebalako.

Aztuaren esana kontuan eukan Pelias'ek eta maltzurkeri bat asmau eban lobea ezkutatzeko. Esan eutson:

– Ondo litzake jenteak jakitea zu bikaiña ta adoretsua zarala eta orrelan pozik artuko zaitue erregetzat. Orretarako egite aundi bat egin bear dozu: Urrezko artulearen jabe egin. Kolkida'ko basoan dago gordeta eta mamutzar batek zaintzen dau gau ta egun. Zoaz, il mamutzarra eta ekarri urrezko artulea. Orrelan guztiak autortuko zaitue erregetzat.

Aundikeri-zalea zan gazte onek pozik entzun eban osabearen esana eta bururatu be ez maltzurkeria zanik. Bereala asi zan gertakuntzak egiten. Lenengo Argos'egana joan zan itxas-ontzi-egille ona zalako eta berrogeta amar arraunlari bearko ebazan ontzi bat egiteko eskatu eutson. Gero batu ebazan inguruko guda-gizonik sendoenak. Gero Jason'en menpean itxasoratu zan Kolkida-aldera joateko. Eurakaz joian Orfeo soñulari ona be, Erkules indartsua ta Atlanta be bai eta Teseo.

Ikusleak txakola egozala, jaso ebazan aingurak eta zabaldu ebazan oialak eta arraulariak arraunari eragiñez, urten ziran kaitik. Argos zan ontziaren izena.

Ille batzuk igarota, eldu ziran Kolkida'ra. Jatekoa ta ura artzeko sartu ziran kai bateko errege ankerrak esan eutsen, bere lurraldera urreratzen diran erbestetarrai eupada bat egiten eutsela: Errege indartsu aregaz ikubilka egin-bearra eta geienak il egiten ebazan.

Polux aukeratu eben argonautak erregeari aurpegi emoteko. Gizaki asko batu ziran ikusteko. Asi zan burrukea erregearen eta Polux'en artean eta alkarrari ederrak emon eutsoezan. Jo eban ederto Polux'ek erregea eta konorta galduta jausi zan. Argonautak arin alde egin bear izan eben.

Beste lurralde baten Arpi izeneko pizti gaizto biren menpetik askatu eben Pineo jakintsua. Onek lagundu eutsen Kolkida'ra, ingurua ondo ezagutzen ebalako. Arriskurik aundienak sarreran aurkituko ebezan aitz aundi egozan an eta aitz biak alkarganatu-arte itxaron bear eben.

Jason'ek Pineo'ren esana egin eban eta aitzen artetik igaro ziran.

Egun gitxi barru eldu ziran Kolkida'ra eta Eetes erregearengana aurkeztu. Jason'ek esan eutson asmoa zein zan, urreko artuleagaz jabetzea. Eetes'ek esan eutsen, lenengo landan bizi diran zezen bi buztartu bear ebezala eta oneikaz solo bat laietu (goldatu) eta mamutzar baten agiñak erein.

Jason'ek gau aretan ezin egin izan eban lorik eta aots bat entzun-ondoren emakume bat ikusi eban alboan zutunik:

– Ez bildurrik izan, Jason. Medea naz ni, Eetes erregearen alabea. Laguntzera natortzu. Aitak zu ondatzea gura dau, baiña nire esana egiten ba'dozu ondo urtengo dozu eta urrezko artulea eskuratu be bai. Isil-isilik esan eutson zelan jokatu.

Urrengo arratsaldean jentetza aundia batu zan baso sagratuan zezen basatiak buztartzera. Zezenengana urreratu zanean, oneik zurretatik suzko arnasea botaten eben baiña suak ez eutson kalterik egin Jason'eri. Buztartu ebazan eta laierian lotu be bai eta laieta asi.

Iñok ez ekian Medeak ukendu bat emon eutsela eta onegaz igurtzi eban Jason'ek bere burua erre ez daiten.

An ebillen Jason soloa lantzen eta agiñak ereiten. Amaitu ebanean, soloari begira egoan Jason eta mamuortzak erne eta gudari biurtu ziran eta guztiak asi ziran

Jason'eri erasoten. Jason'ek artu eban lurretik arri aundi bat eta bota eutsen gudari arei. Gero ezpateagaz eraso eutsen eta laster aurkitu zan areriorik gabe.

Mindu zan Eetes erregea, bere maltzurkeriaz ezer lortu ez ebalako. Eta Jason eta bere lagunai gau aretan erasotea erabagi eban. Ontzira lotara joiazenean izango zan erasoa.

Baiña Medeak barriro be lagundu egin eutson Jason'eri beronegaz baso sagratura joanda. An egoan artulea zaintzen mamutzarra eta Medeak ekarritakoa eta indar aundikoa zan salda bat bota eutson burura. Jason'ek eta lo gelditu zan mamutzarra. Jason'ek artu eban zugatzetik urrezko artulea eta Medeagaz batera ontziratu zan. Oialak zabaldu ebezan eta alde egin eben.

Onik eldu zan Jason Tesalia'ra eta osabeari emon eutson urrezko artulea. Orduan, nai ta nai ez, lobeari erregetza emon-bearrean aurkitu zan Palias.

OLAZAR´tar Martin´ek

GARES/PUENTE LA REINA



GARES/Puente La Reina (Santio-bidean)

Santiobidean, Naparroa'ra sartzen garanean, zubi eder bat aurkitzen dogu, Erregiñearen Zubia deritxona, Gares errian. Zubi orretatik sartzen zan Euskalerrira Santio-Bidea.

Bizkai'ra sartzeko Markiña zan toki egokia.

Baiña itxasoz be etorten ziran ibiltari batzuk, geienak Bermeo'tik.

Oneik lenengo Mungia'ko Santa Mariña ermitera sartzen ziran eta gero Laukariz'ko Santiago'ren eleizara, baiña or bitartean inguruetan zabaltzen ziran, esaterako Markaida Salbatzaillearen eleizara eta Fruniz'ko Salbatzaillearenera. Izan be Orreaga'koa Salbadore'gaz asi eta Leire'ko Salbadore'gaz jarraituta, Santio-bidean oneraspen aundia jako Antz-Aldatze edo Salbadorearen jai oneri. Eta Fruniz'ko sarrera erromanikoan ba-dago ezaugarri dan kontxa bat be age baten irarrita.

Gero Berriaga'ko Ezkurran egoan San Bartolome'ren ermitea ikertuko eben eta andik Bilbao'ko Santiago'ren eleizara. Emendik aurrera batzuk itxas-ertzeko bidea artzen eben Santander'era eta beste batzuk Orduña'tik gora igoten eben bide frantsesagaz bat egiteko.

Santio-bide au ona izan zan Europa'gaz alkartzeko, salerosleen bideak be ba-ziran eta. XI gizaldian izan ziran ibiltariak ugerien.

OLAZAR´tar Martin´ek

GUDARITZAREN AURKAKOAK ETA ASKATZAILLEAK

Gaurko euskaldunak ez dira soldaduskaren lagunak.

Egia esan, euskaldun asko ibilli dira gudan, España'ko ta Frantze'ko gudarosteetan, erromatarren koorteetan edo kurutzadunen ekintzetan, baiña gudariak beartuta batzen ibilli ziranean, aurka jarri ziran euskaldunak eta naiago izan eben erbesterako bidea artu.

1872n. urtean karlostarren gudarako udal euskaldunak gudari-zerrendak egiten asi ziranean, asko be asko izan ziran Ameriketarako bidea artu ebenak, euren artean neure osaba bi.

Laster asi ziran iges onen bideak debekatzen eta 1872-1875 urteen artean Gipuzkoa'ko Foru Aldundia, Dorronsoro buru zala, asi zan igeslariai isunak edo diru zigorrak ezarten, lenengotan igeslariai baiño ez, baiña gero, igeslariak arrapatzea gaitxa zalako, euren etxekoai be bai, eta gero erbestera joatea debekatu egin eben gudaritzatik aske ez egozan guztientzat, Ameriketatik eskatuak izan ezik.

Baiña ez eben lortu ezer, gazteak iges egiten eben legearen aurka dagoala or jakin-arren.

Iruña'ko Gotzaiñak 1867n, urtean agiri bat agertu eban eta Tolosa'n batu zan Gipuzkoa'ko Aldundiak beste bat, igeslarien aurka eta ori lortzeko udalai agindu jaken gazteai lana emoteko.

XIX gizaldiaren azkenetan España'k Kuba, Puerto Riko eta Pilipiñak zaindu bear ebazan askatasun lortu ez egien eta gudariak eskatu ziran. Asko agertu ziran ezikaitz eta igeslari. Geienak Ameriketara joaten ziran eta batzuk Laterri Batuen gudarostera sartu ziran, erri aretan erritarrak izatea lortzeko.

1914n. urtean Ludiko I Guda asi eta Frantze'k gudarien deia egin ebanean euskaldun asko izan ziran ezikaitzak edo aurkalariak, beste leku batzutan baiño geiago. Urrengo urtean lenengo baimen-aldiak emon ziranean, gudari askok uga igaro eben eta gudarostea itzi. Guztiak joan ziran Ameriketara. Baigorri'n, esaterako, erdiak baiño geiago ziran ukatzailleak.

Afrika'ko guden ordua etorri zanean, gauza bardiña jazo zan.

Eta Primo de Rivera'ren diktadura aldian zer?

1923n. urtean asi zan diktadura eta euskal jakintzaren eraso be bai. Ortik sortu ziran ainbat erbesteratu.

***

Erbesteratuen artean lan aundia egin ebenetariko bat Mexiko'n Elias Gallastegi izan zan. Izparringo oneik argitaratzen lortu eban: Mexiko'n "Patria vasca", York Barri'n "Aberri" eta "Nación vasca" Buenos Aires'en.

Erbesteratu asko izan ziran 1936n. urteko guda asi zanetik: 1936-Lenengoak, Arjentina'ra Munariz naparra eta Barrena Giputza. 1937: Talde aundiak erbestera. Europa'ra 100.000, Ameriketara Eusko Jaurlaritzaren langilleak eta gudariak. 1938: Ordezkaritzak ipiñi ebazan Agirre'k eta aldizkariak sortu.

Ondo alkartu ziran euskaldunak alkarrari laguntzeko, Agirre be eurakaz egoala.

***

Lenagoko erbesteratuak gogoratu daiguzan: XV gizaldian asi ziran judatarrak erbesteratu ebezanean ara joan ziralako, gero inkisiziñoak sorgiñen aurkako erasoa egin ebanean, Alba'ko Dukeak Fernando Katolikuaren izenean Naparroa eskuratu ebanean, XIX gizaldian karlostarren guda galdu eben kiberalak...

Euskaldun asko batu ziran Ameriketan eta lan aundia egin eben lurralde arein askatasuna lortzeko. Kolon'en denporan asita euken euskaldunak jokera ori, gogoratu esateko Oñate'ko Araoz'en jaioa zan Lope de Agirre etoia. Onexegaitik an españatarrak erbesteratu eben ardura aundiak eukazan Landetxo mungiarra. Au gero Panama'n il zan. Ez doguz aiztu bearko Arjentina'n lana egin eban Alzaga'tar Martin eta ain ezaguna dogun gure Simon Bolibar eta beste asko.

OLAZAR´tar Martin´ek

LOREA

Loreen lorea zara
larrosa gorri ori
usaiñez betea,
zure aista zuria
beren izateaz da
ederrez betea,

Zuri-gorri usaiña
baratz guztian dabil
gozoa zabaltzen,
erleak goitik egaz
lorerik lore doaz
eztigaiak batzen.

Baratz orlei ederra
lorez apaindu zara
edertasunean,
zuri begira dago
giza seme guztia
maitasun betean.

PAULIN

2007N. URTEKO EKINTZAK (Batzar Nagusiko Itzaldia)

Adiskideiok:

Gogoratu daiguzan orain 2007n.urtean gure Alkarteak egin dauzan lanak.

1.- ILLEROKO BATZARRAK ETA URTEROKOA

Illero alkartu gara batzordea osotzen dogunok, Araudiak eskatzen dauan lez, batzarra egiteko, eta batzar-agiria idatzi dau Aturxa´tar Paul idazkariak. Gure agiritegian ikusi leikez.

Eta urteroko batzarra gaur egiten gagozan au dogu.

2.- IPUIN-SARIKETA

Bilbao ´ko Udal-Batzaren laguntzaz egin dogu aurten be ipuin-sariketa eta oneik izan dira sarituak:

1º saria: Josemari Murua.
2n.saria:Ziortza Arrien.
3n.saria:Asier Legarreta.
4n.saria:Palmi Merino.
5n.saria: Alberto Narbaiza.

3.- EUSKAL ASTEA

Euskerearen astea be egin dogu, zemendiaren 19n. egunetik 23n.´era eta oneik izan dira izlariak eta gaiak:

19-astelena:Asier Legarreta´k:Guda aurreko bertsolariak.

20-martitzena:Atutxa´tar Paul´ek:Euskalerriaren askatasuna(I)

21-eguastena:Ana Uriarte´k: Umandi Internet´en.

22-eguena: Olazar´tar Martin´ek: Euskal.abizenak.

23-barikua:Atutxa´tar Paul´ek:Euskalerriaren askatasuna(II).

4.- EGUTEGI-TAKOA

Aurten be argitaratu dogu, Bizkai´ko Foru-Aldundiaren laguntzari eskerrak eta argi kusten dogu jenteak pozik artzen dauala egutegi au,bai Durango´ko Azoka´n eta bai errietan. 15 000 ale dira.Banatzen lan aundia egin dau beste batzuren artean Iñaki Egurrola bazkide jaunak.

5.- INTERNET

Lan aundia egin dogu Umandi´ren Asmo-Iztegia eta beste idazle batzuren liburuak sartzeko eta orain eskuartean dogun lana Larrea´tarren Jauntza (Señorio de Larrea)´ren agiriak aztertu, katalogatu eta internet´era sartze da.

Arlo onetarako laguntza guztiz ona eta aundia emoten dauskue Bizkai´ko Foru-Aldundiak eta Zornotza´ko Udal-Batzak. Eskertzekoa lekaide karmeldarren biotz ona eta danerako gertu egotea.

Ana Uriarte´ren eta bere taldekoen lana da aitatu-bearrekoa.

6.-IRAKASKINTZA

Gure alkartearen elburu bat beti izan da Bizkaia´n eta batez be Bilbao´n euskerea zabaltzea. Ikasleak urritu egin dira ikastaro asko sortu diralako eta batzuk ondo ikasi egin dabelako, baiña guk urtero lez jarraitzen dogu irakasten. Aurtengoa 39n. ikastaroa da eta iru maillatan irakatsi da. Alkar-izketarako be ekiñaldiak dirala.

Astelenetik barikura izaten dira irakastaldiak eta 120 euro da ordaintzekoa. Ortik gora bear dana Euskerazaleak alkarteak ordaintzen dau.Urrillaren 9n.egunean asi zan,

7.- "ZER" ALDIZKARIA

Illero argitaratu dogu gure aldizkaria, bizkaieraz idazten dan bakarra.

Orretarako be irarkolako lanak Bizkai´ko Foru-Aldundiak ordaintzen dauskuz.

Ba daukaguz oraindiño ordain-saria eskuratzeko arazoak Bilbao´n naiz, batez be, errietan.

8.- ETXEA

Etxe zarra dogulako, izaten dira arazoak kuotak ordaintzeko, baiña zorionez, aurrera goaz.

9.- ESKERRAK

Asko dira gura lanak egiteko daukaguzan laguntzailleak.

Aitatu doguz,bein baiño geiagotan, Bizkai´ko Foru-Aldundia eta Bilbao´ko Udal-Batza eta emen aitatu-bearrekoa da iragarkia opari ordaintzen dauskun Bilbao Bizkaia Aurrezki-Kutxa. Guztioi eskerrak.

Gaiñera iñoz ez doguz eskertuko bear dan bestean euren lana eskintzen dauskuenak, batzuk Batzordekoa eta beste batzuk ez, baita ainbeste idazle trebe euren lanak doan emoten dauzkuezanak.

Guztioi eskerrik asko!

OLAZAR´tar Martin
Lendakariak

ARRASATE'KO ALKARGOAK

Urrengo idaz-lan oneik Arrasate'ko Alkargoen sortzaile nagusi dan Jose M.ª Arizmendi-Arrieta'ren gomutaz eta omenez idazten dodaz, eta "Nor bere patroi" idazpurua daroan Joseba Azkarraga Etxegibel'en liburua dabe oiñarri.

Auxe da euskaldunok asmatu dogun jokabide eder bat: "Lanaren bidez gizartera sartu, norberaren nortasuna galdu bagerik".

Orduan, alde batetik lana alkarteratzen da eta bestetik norberaren buru-jabetza, lanaren ondorenak eskuratzea.

Bide ori ez da komunismoa, jabetza ta plusbalia errira ez doazelako, bazkidearen eskura baiño. Gaiñera jabetza be ez da laterriarena, bazkideena baiño.

Ez sozialismoa. Bakoitxaren jabetza bizi-bizi zaintzen daualako.

Ori da kooperatiba edo alkargoen jokabidea, baiña orain aztertu daigun Arrasate'ko bizi-ikasia edo esperientzia. Loru dau elburu ori? Zertan jokatzen dau artutako bideak ez diran beste bide batzutatik?

Alkarkideakaz alkar-izketa luzeak eta sakonak egin dira, batzuk sortzailleak izan dira, beste batzuk oraintsuko alkarkideak.

Argi dago guk euskaldunok Arrasate'ko alkargo onein bidez munduari ekarpen eder bat ekarri dautsagula.

Baiña: 1.– Bazkideak jabetza ta erabagiak artzeko eskubidea euki arren, teknokratak menperatu dabe eskubide ori eta alkargoak "holding" biurtuta geratu dira. Arriskua dago or!

2.– Lan-sariak bardiñak ez izatea agertu da.

3.– Alkargoak laterri-artera sartu dira eta euskal-sena galtzen doaz.

4.– Geroago eta langille geiago artzen dira, alkarkideak ez diranak, "filial" antzeko bat dira orreik.

5.– Alkarkide izatea zer dan eta zertan kideko izan bear daben, ez da bear dan bestean azaltzen.

6.– Alkargo barri gitxi sortzen dira.

7.– Arrasate'ko Alkargoak Euskalerriko indar bizietatik alboratuta bizi dira.

Ikusten da ba, Arrasate'ko Alkargoak pragmatismo'rantza joten dabela. Asieratik agiri zan, baiña geroago ta indartsuagoa da jokera ori.

Iñoren izerdia xurgatzeko edo esplotaziñorako jokoa be sortu da alkargoetan eta ori lenengo norberaren izerdiagaz egiten da irabaziak egokiro banatu bagerik, urrengo artzen diran langilleen izerdia xurgatzen da eta azkenez azpi-ituna dauke baltzu edo enpresena eta euren langilleena. Bide arriskugarriak irurak benetako alkargoa izteko!

Eskerrak alkargo txikiak eta alkar-laguntzailleak sortzen dirala, arrisku orreitatik urrin dagozenak, oneik aldatu leikee gizartea.

Sharryn Kasmir Laterri Batuetako antropologoa edo giza-iztilaria etorri zan Arrasate'ra gure alkargoak ezagutzera eta aztertzera. Emen zeru barri bat aurkituko ebalakoan etorri zan, baiña sei illebete egin ondoren, akats oneik aurkitu ebazan: 1) Sozialismoaren eta langilleen eragiñen aurka joiala. 2) Langille ta zuzendarien artean distantzi aundia egoala. 3) Langilleak ez dabela kontrolatzen euren lan-bizitza. Kapitalismo gizatiago bat baiño ez dirala alkargoak ikusi eban. Erlejiñotik eta abertzale bigunetatik urrago egozala, langilletik baiño.

Zer esango dogu? AKE edo Arrasate'ko Alkargoak asierako balioak galtzen doazela?

Asko dira, alkargoen barruan naiz kanpoan, baietz uste dabenak. Ori esateko oiñarri lez artzen dabe langille merkeagoak aurkitzeko Txina'ra joan dirala lana egitera. Beste batzuk ostera alkargoak oraintxe dagozela sasoirik onenean diñoe.

Ona emen zer diñon Juan Mari Arregi'k: "Alkargo oneik egin daben lan izugarria autortu-bearrean gagoz". Beste batzuren ustez ekintza onek barruan daroa mundu barrian bearrezkoa dan giza-zaletasuna.

ETA izkilludun erakundeak be agertu dau bere eritxi kritikoa: "Alkargoak ez doaz bide onetik. Eskualde batzuren aurrerapena lortu da baiña kolokan dago gizartea aldatzeko almena, langilleak jabe izatea. Ori teori utsa da alkargo oneitan. Liberalkeri barriari aurpegia zuritzeko tresna ezin-obea biurtu da".

OLAZAR´tar Martin´ek

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

NEKAZARI ASIBERRIA

Esperientzia berria zan Felitxurentzat bizimodu a, naiz eta nekazaritza atsegingarria izan, bera kaletarra zan betiko.

Gizonari lantokian atseden adina eldu jakonean eta seme-alabak burujabetza lortuta, biok, bizimodu lasaia gura izanez gero betiko etxebizitza saldu eta larregi pentsatu barik betiko erri ondoko menditxo batean etxe txikia, osteko baratze bategaz, erosi eben.

Euren seme-alabak ez eben ondo ulertzen, danok ezkondu ostean jaiotako errian gelditzea erabaki eta orain gurasoak erria itzi eta eurengandik urrundu gura eben. Azalpenik ez eukan eta orrela esan eutseen . Gurasoak seme-alabak lasaitu guraz oso urbil egongo lirakela itzemon eutseen eta gainera ilobak etorriko diranerako toki ederra apainduko ebela; baratze, lorategi eta guzti.

Tokia ezagutu ebenean danok poztu ziran. A zan lasaitasuna eta bakea! Mendi aretatik urien urruntasuna gauetik ikusita ikusgarria zan benetan; margo askotako argien dizdira, ixiltasuna, aizea... Andik bere, egunez itxasoa ikusten zan; ondartza, kaia, itsasontziak... Bereala konturatu ziran danontzako aukera ona izan zanaz.

Etxe atzeko lur ain basatia ikusten eta amaren asmoa lantzea zala jakitean irriak sortu ziran. Ez amak ez aitak ez eurek be, ez eben inoiz ortuko-lanik egin baina amak arro-arro berak atonduko ebala itz emon eutsen eta ikastako liburu bat erosi eban.

Antxe egoan gaur Felitxu aitzurra eskuan nondik asi jakin barik. Lenengoa, belarra kentzea zala, liburuak arti iñoan eta larregi ez pentsatzen gogor asi eutson bearrari. "Lur-gaineko belarra kentzeko ez da atxurraz asko sakondu bear", –irakurri eban, eta onelaxe egin, baña... norantza joan? aurrerantz ala atzerantz?

– Ba, bardin izango da! zelan gelditzen dan obeago ikusteko atzerantza joango naz, –pentsatu eban Felitxuk– eta olan jarraitu eban bere zeregiña. Andik gitxira belar-mordo a atzeratzea oso astuna eta gogorra zanaz konturatzen, aitzurra itzi izerdia legortu eta klink egiteko lurrean jesarrita egoanean, andik ebillan auzoko batek agurtu eban:

– Zer andrea? soloa lurgorritzea gogorra da ezta?

– Bai, –erantzun eban Felitxuk– nilako asiberriarentzat batez be.

– Eta alderantziz egiten gogorrago. –Erantzun eban auzokoak irribarrez.

– Zelan egiten dozu zuk, ba? –itaundu eutson Felitxuk erdi musturturik.

– Egiten dan moduan, andrea, egiten dan moan! beti aurrerantz, kendutako belarra lurrean izten legortzeko eta gero eskuarez errezago biltzeko.

– Eskerrik asko gizona! ori ez dator nire liburuan baña bardin da, lur au landatzeko oso txarra da.

– Zergaitik uste dozu ori, andrea?

– Neurri guztietako kokoak baño ez dodazalako aurkitu.

Auzokoa orrelakorik entzuten barre-algaraz asi zan gelditu ezinik eta Felitxuk erdi-asarre galdetu eutson:

– Zer, gizona, kontatuko daustazu barregeia?

– Parkatu andrea, ez dot zutaz iseka egin gura baña aolku bat entzun gura badozu, nekazaritzari buruz ikasteko liburuetan baño nekazariengandik obeago.

– Gertu nago zeozer ikasteko. Irakatsiko daustazu zuk ainbat koko zelan il-egin?

– Ez dogu ezer il-egin bearrik, –erantzun etuson auzokoak irribarretsu± koko orreek luarrak dira eta luarrak lurgintzarako guztiz bearrezkoak dira lurra aizetu eta ezatzeko. Poztu zaitez ba, zure lurra emankorra dalako, zer landatu edo ereindu aukeratu eta orduan bai, zure liburua onuragarria izango jatzu.

Felitxuk erdi lotsaturik ikasgaia eskertu eta aurrerantzean bere aolkuak eskatuko eutsozala esaten ortua lurgorritzen jarraitu eban eguzkiak azken izpiak agortu arte.

Negua eldu zanerako Felitxuk, bere lenengo aza ederrak bildu ebazan sendi osoaren arrotasunerako eta pozaren-pozez "azaren jaia" antolatu eban. Zoriontsua zan benetan, nekazaritzaren mundua gogorra izan ezkero begi ongarri eta atsegiñezkoa zan. Gauza asko ikasi ebezan Felitxuk; noiz eta zelan erein, landatu, goroztu, lurreztatu, landatutako igali-zugatzak noiz iñaustu, zomorro kaltegarriak edo onuratsuak zeintzuk ziran... Baña batez be, ama lur maitea zaindu eta bere emoitzaz gozatu.

Palmira Merino Portela

ENTZUN

Goizez, entzun dot entzun
egunren dei ona
eskarrez beterik,
izadi ta gizadi
biak alkartu dira
urrezko jantzirik,

Zerua eder dago
ta izarrak izketan
edertasunagaz,
belarriak zur dagoz
kantu gozoak artzen
abegi onagaz.

Eta zu, lur maitea,
noraiño eldu zara
ederren ederrez...
kanta, bai, ederrari,
gizonak, entzun
zoriontasunez.

PAULIN

CROMWELL

Batzurentzat errege-erailtzaillea ta agintari gogorra, beste batzurentzat askatasunaren gidaria, Cromwel gizon garrantzitsua da, mundua aldatu ebana.

1630n. urtean Oliver Cromwel Ipar-Ameriketara joateko egoan, bere fedea puritanismoan eta ez anglikanismoan bizi izateko.

Lagun batzuk urreratu jakozan Inglandian geratzeko eskatzen.

1629n. urtean parlamentua kendu eban, baiña dirua bear izan ebanean barriro ipiñi eban. Cromwel parlamentaria zan eta bigarrenez be aukeratu eben.

Erregea bildur zan bere almena galduko ete eban eta barriro kendu eban.

Parlamentariak oso asarre egozan erregearen aurka, parlamentua euren eskubideak zaintzeko bidea zalako.

Cromwel'ek gudarostea gertatu eban eta gudariak Jainkoa goresten eben. Karlos'eri gud egin eta irabazi eutson, baiña bere barruan ez egoan atzera egiteko et 1647n. urtean parlamentariak banandu eta Eskozia'ra iges egin eban, barriro gudea egiteko ango laguntzagaz eta Frantze ta Aita Santua be lagun ebala.

Cronwel'ek sutsu erantzun eban eta 1648n. urtean azpiratu ebazan Eskozia'tarrak eta I Karlos alboratzeko eta parlamentua aske izteko eskatu eutsen.

Karlos etoi lez artua eta epaitua izan zan. 1649n. urtean erail eta erkala edo errepublikea aldarrikatu zan.

Errege-zaleak Aita Santuagaz bat eginda, Irlanda'tik sartu ziran. 1649n. urtean joan zan ara Cromwel eta azpiratu ebazan.

1650n. urtean itzi eban Irlanda, Eskozia'ra joateko. Guda egin bear izan eban eta irabazi be bai. Monarkia alboratuta geratu zan.

Cromwel'ek parlamentua osotu eta indartu nai eban, baiña parlamentariak ez eben nai eta berak parlamentua kendu egin eban.

Urte gitxi geratzen jakozan, baiña Olandarrak menperatu ebazan, España'tarrak be bai, eta 1658n. urtean, il zanean, Inglandia laterri aundi bat zan. Monarkia barriro ekarri ebenean Cromwel illobitik atera eben. Ori jazokizun bat baiño ez zan izan.

Gaur parlamentuaren aurrean bere irudia agiri da.

JUAN DE LA KOSA, BIZKAIATARRA



Juan de la Kosa bizkaitarrak 1500n urtean egin eban lur-irudia lenengoz Amerikak agiri dirala.

Amerika´k aurkitzean zer-ikusi aundia izan eben euskaldunak. Kolon´en iru itxas-ontzietak bat oso-osoan egoan euskaldunen eskuetan eta Kolon´eri matxinada bat be egin eutsoen, berak ibilli bear zirala esandako leguak amaitu ziranean. Eta beste ontzietan be ba-joiazan euskaldunak.

Amerika´k aurkitu ziranean asko izan ziran lur-irudi edo mapak egiten asi ziranak. Olako lur-irudia egin eban Juan de la Kosa´k. Oneri Isabel Katolika´k "Juan el Bizkaino" esaten eutson.

Juan ori Bizkaiatarra ete zan ba?

Bai, bizi Santoña´n bizi zan, baiña jaiotzaz bizkaiatarra zan.

OLAZAR´tar Martin´ek

INGLAND'EKO ISABEL

Isabel au be erlejiño-barritzailleen aurkakoa dogu, Maria Tudor eta II Felipe'ren antzera.

Greenwich'en jaio zan 1553n. urtean iraillaren 7n. egunean. VIII Enrike zan aita Ana Bolena ama.

Ana erail ebenean, deslai geratu zan Isabel. Enrike bere aita Erroma'tik banandu zan eta batera protestanteen aurka egoan. Isabel'ek bizi gura ba'eban zur jokatu-bearra eukan.

VIII Enrike il zanean, VI Eduardo izan zan errege eta Englandia'n aldakuntzak asi ebazan, gero Maria Tudor izan zan erregiña eta barriro katolikuak ziran nagusi eta protestante asko erail ondoren, Maria espetxeratu eban.

1558n. urtean il zan Maria Tudor seme-alaba bagerik eta Isabel izan zan erregiña, baiña antzua zan au be.

Isabel'ek lenengo urteetan ekonomia sendotu eban eta errian protestanteai idegi eutsen bidea.

Aita Santuak eskominikatu egin eban Isabel protestanteakaz bigunegia zalako eta orrelan zan Maria Tudor odol-ixurtzailleagaz paraketu ezkero. Ez eban gudarik egin Aita Santua pozik eukiteko. Egia esan, Aita Santuaren jokabideak Inglandia urrindu eta protestanteen eskuetara bota eban.

Baiña Isabel'ek nai ebana protestante-bidea zan, katolikuakandik urrean egoana.

Sortu ziran katolikuen matxinada'k be, Aita Santuak bultzatuta. Iñoz josulagunak be izan ziran bultzagille, Isabel erregiñea kentzeko. Isabel'ek oneik be bigun artzen ebazan, naita ber-berak Maria Estuarto erail.

Ondorena? Inglandia'n katolikuak aurrera eta protestante estuak albora, erdian anglotarren eleizea egoala.

Errege-aldi argitsua izan zan Isabel'ena.

II Felipe'ren gudak, "Armada Invencible" barru zala, alperrikizan ziran. Isabel'ek beti aurrera jarraitu eban. Baiña azken-urteak garratzak izan jakozan, zartzaro ituna, ulea galduta, lagunak urrituta, Irlanda be aurka... London'en il zan 1603n. urteko epaillaren 23n. egunean. Ondorengoa Jakobo izan zan, Maria Estuardo'ren semea.

OLAZAR´tar Martin´ek

RICHELIEU KARDINALA

Iru elburu lortu ebazan Richelieu kardinalak:Frantze eguneratu,Eleizea ez ipiñi laterriaren gaiñetik eta España´ren nagusitasuna mugatu.

1585n. urtean iraillaren 9n. egunean jaio zan Paris´en. Sendia agintari-artekoa zan. Bost neba-arreba ziran eta bera 4ª.

Luçon´eko gotzain zan bere aitita-osabea eta au il zanean Alphonse bere anaia egin eben gotzain, baiña onek naiago izan eban kartuhja´ra sartu. Or ikusi eban bide bat gure kardinalak, naizta gazteegia izan eta Aita Santuaren baimena bear.

Ondo zaindu ebazan gotzain-eskubideak eta XIII Luis´en lomosneru egin eben, urrengo urtean Laterriko eta gudarako idazkari izendatu eben. Laster igon eban! Baiña erregearen ama baztertu egin eben!

1618n. urtean Richelieu erbesteratu egin eben, baiña 1621n. urtean eskatu eutson erregeak Aita Santua´ri Richelieu kardinal egiteko. Iru urte geroago lenengo ministroa zan.

Richelieu´ren lenengo guraria España´tik Austria sendikoak alboratzea zan, nagusitza Frantze´k euki egian eta orretarako Protestanteakaz bat egin eban kardinala izan arren, ogeta amar urtekoa deritxon gudan.

1630n. urtean bera goratu eban Medicis´ko Maria´k alboratu nai izan eban. Larri aurkitu zan Richelieu kardinala, baiña arerio eban erregeak lagundu eutson, maltzurra zalako.

1635n. urtean Richelieu´k lortu eban Frantze protestanteen aurka gudara sartzea.

Zergak igon bear izan ebazan eta matxinadak sortu jakozan eta arrisku aundian ipiñi eben kardinala. 1640n. urtean katalanak izendatu eben XIII Luis Bartzelona´ko konde eta Frantze´tarrak sartu ziran Kataluña´ra, Pirineoetako Bakean bideratu zan arazorako.

Richelieu Frantze´ko aberatsenetariko bat biurtu zan baiña azkenerantza erriak ez eban maite.1642n. urtean il zan eta bere lekura beste kardinal bat, Mazarino, sartu zan.

OLAZAR´tar Martin´ek

SAN PAULO

Jesukristo gure Jaunak ederto zabaldu eban Barri Ona, bere egiteakaz, berbaldiakaz, parabolakaz eta batez be bere eriotza ta biztuereagaz, baiña ainbat gauza geratzen ziran zeaztu ta argitu bagerik, batez be jentillakaz artu-emon aundia eukan San Paulo´rentzat:

– Jesus Jainkoaren semea da ,baiña Judatarrak ulertzen eben lez Aitak onartua dalako ala izatez Jainkoa lakoa zalako, erromatarrak ulertzen eben lez?

Jesus abadeen laguna ez zan izan bere bizitzan, arerio ebazan abadeak Anas eta Kaifas asita eta laiko lez jokatu eban beti. Kristo´ren alkartean ba-egoan abaderik?

Jauretxe edo tenpluan opari edo sakrifizio asko eskintzen ziran. Alkarte barrian ba-egoan oparirik?

Olako itaunai eta antzeko beste askori erantzun bear izan eutsen Paulo´k, baiña orretarako beti jokatu bear eban Alkartearen Arduradun ziran Santiago (Jaunaren anaia eta ondorenduna) eta Kepa edo Pedro deunagaz bat eginda eta alkar-izketa luzeak izanda.

...

Zelakoa zan Paulo gorputzez?

II gizaldiko idazle batek diñoskun lez, kaskamotza-kalboa,anka-okerra,zur-zorrotza... Eta errazoi aundi bagerik esan dabe batzuk Paulo dala kristiñauen iraslea, fundadorea.

Saul zan bere izena,Israel´go lenengo erregearen izena bera, Benajamin´en leiñukoak biak.

Paulo´ren ondorenak gaur-arte daukaguz eleizan.

...

Asia Txiki´ko Tarso´n jaio zan eta jatorriz jutarra izan arren irabazita eukan "Erroma´ko erritar" izatea.

Umetan urten eban Tarso´tik eta Jerusalen´era joan zan Gamaliel´en ikasle lez ikasketak egiteko. Berau be fariseotarra zan, Gamaliel lez. Ezin izan eban onartu kristiñauen jokabidea eta oneik aurrean erabilten asi zan, baiña Damasko´ra bidean Jesus Jauna agertu jakon esanez: "Saulo, Saulo! Zergaitik zabiltz nire aurka?" Eta biurtu egin zan, bateatu eta arerio zana, Barri Ona zabaltzen asi, garurko Jordania´n. Ez dago ango albisterik.

37n. urtean Jerusalen´era joan zan eta ikusi eban bere irakatsiak eta apostoluenak antzekoak zirala.

Bere errira biurtu zan eta Barri Ona zabaltzen an be asi baiña lan gatxa izan jakon eta antxe artu eban bizitza osorako izango zan gaiso bat.

47n. urtean Bernabe etorri jakon billa Jerusalen´dik eta biak batera Antiokia´ko alkarkide egin ziran. Antxe asi ziran eurai "kristiñauak" esaten. Antxe sartu ziran lenengo jentillak Eleizara.

Paulo´k asi ebazan bere apostolu-ibillaldiak. Lenengoan Txipre ta Asia Txikian egin eban lan ori. Jerusalen´go Batzarrera joan zan eta an erabagia artu eben jentillak ez egiteko judatar kristiñau izan baiño lenago.

50n.urtean bigarren ibillaldia asi eban eta Europa´ra sartu zan eta urte bian berba egin eban Mazedonia ta Grezia´n eta alkarteak sortu ebazan eta kartak idatzi be bai.Onetan lenengoa izan zan, Zizeron alde batera itzi ezkero.

57n. urtean egotaldi bat egin eban Efeso´n eta Jerusalen´ñ era joan zan ango alkarte pobreari beste alkarteen diru-laguntzak eroaten. An baiitu eta Zesaria´ra eroan eben, baiña berak "eromatar" zala esan eta Zesar epailari izatea eskatu eban. Erroma´ra eroan eben eta pozik egoan uri aundi aretan Barri Ona zabaltzeko. Ostera latz bat egin on doren 60n. urtean eroan eben ara eta urte bi egin ebazan espetxean. Andik idatzi ebazan eskutitzak efesotarrai,kolosatarrai eta Filemon´eri. Eta asle itzi eben.

Gero España´ra etorri zala diñoe batzuk.Berak be uste ori agetzen dau epistola baten. Asia Txikira joan zan barriro, baiña baitu egin eben Erroma´ko suaren ondoren eta artzain- epistolak idatzi ebazan.Timoteo´ri bi eta Tito´ri bat. Alkarteentzat arauak emoten dautsez. Laster ebagi eutsoen samea.

Mundua asko aldatuta itxi eban.

Paulo ez da eleizearen fundatzaillea baiña bai Eleizeari izaera bat emon eutsona. Sarritan aitatzen dauz Liburu Santuak, 90 bider inguru. Bere irakatsiak ez dira alboratzen beste aportoluak irakatsi ebenetik. Guztiak batera datoz Salbamena Kristo´gandik datorrela esaten, guztien oiñarri Jesus´ek irakatsia dala.

Eleizetan presbiteroak ipiñi ebazan azkenerantza. Oneik ez ziran abadeak, antza euki arren.

Opariak edo Jauretxeko sakrifizioak ez dira onartzen, baiña opari bakarra Eukaristia da eta Kristo´k or bere burua eskintzen dau opari bakar lez eta denporearen joanean Presbiteroak izango dira opari-eleizkizun orreitan buru. Lengo abadeenan atzera.

Paulo´renak izan ziran ikuspegi oneik onartuak izan ziran beste apostoluen eleizetan be. Laster egin zan batasun arrigarri bat Eleizan.

OLAZAR´tar Martin´ek

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

ISABEL BIZKAI'KO ANDEREA



Isabel Katolikearen azken naia. (Eduardo Rosales - Prado - Madrid).

Bizkaia Jaunerria antxiñatik, VIII gizalditik dirudianez, dogu, orduan jaun bat aukeratu ebelako.

Zertarako zan jaun ori?

Gudarostea batu eta onen buru izateko. Laguntza ori doan emon bear eben bizkaiatarrak, baiña Luiando'n egoan malato zugatzetik aragora joan bear zanean aurretiaz saria ordainduta izatekoan, eta erri-ondasunak zaintzeko.

Eta nork esango leuken! Ortitxek etorri zan ondamendia: Bizkai'ko Jauna Gaztelako erregearen alabeagaz ezkondu zan eta orrelan Gaztela'ko erregeari betiko lotuta geratu gintzazan, naiz ta onek ziña egin bear gure Lege Zarrak zaintzeko.

Gaztela'ko IV Enrike zan aldi baten jauna, baiña bitan gitxienez lege-zarren aurka jokatu eban eta bizkaiatarrak kendu egin eben eta bere ordez, oraindiño erregiña ez zan Isabel, aren arrebea aretu: I Isabel Bizkai'ko Anderea.

Etorri zan Larrabetzu'ko Goiko-Eleizara, Aretxabalagana'ra eta Bermeo'ko Eupeme Deunaren Zin-Eleizara zin egitera.

Ondoren Izaro'ra joan zan eta an egoan mailladia konpontzeko agindua ta dirua emon eban.

OLAZAR´tar Martin´ek

EUSKEREA ETA ESTRATOAK

Iberoen izkuntzak, idazkietan agertu dan lez, berba euskaldunak asko daukaz eta izkuntza aren sustratoa zala euskerea dirudi, edo iberoera euskerearen superestrato izatea be ba-leiteke eta olako itzak geroago euskerara ekarriak izan.

Ete da Lurrate Itxasoko izkuntzen sustrato bat, euskerea be or sartzen dala? Ortik etorriak litzakez itz asko España´n,Galia´n eta Italia´n. Itz orreik zabal dabiltzaz eta bereberakaz be batera dagoz. Esatera Perro/can, burro/asno. Sustrato au oso zaarra da sortaldean.

Inguruko izkuntzetan ez da bereizten b/v edo f/v eta ez dauke asierako /r/rik esaterako gaskoiak eta Aragoi´ko erromantzeak. Orrek euskal-sustratoa dagoala salatzen dau. Bardin esan bear da gazteleraren bost bokal garbiai buruz, euskerearen sustraitik datozela dirudi. Gaztelerea euskaldunak erabillitako laterea da eta farntzera Keltak erabillitako latiña.

Baiña abostegia alde batera itzita, agiri ete da semantikan euskerearen ikuturik? Orretan indar biolojikoak eta fisilojikoak be ba-dabiltz sustratoan. Ori diñoe Saussure´k. Meille´ek, Darlington´ek eta beste izkuntzalari batzuk.

***

Euskereak barruan dauka bere erakundea, baiña ba-daukaz kanpotik artutako ikutuak be. Azken au aztertuko dogu orain "estrato" "superestrato" eta "adstrato" agertuz, orretarako euskereari begiratuko dautsagu II gizalditik IX´era.

Lenagoko gauzak aitatu dguz, gogoratu "txalgorritxu", "beigorri" eta olako ipuiñak eta "aitz"etik sortuak diran izenak,

Bizkaierea ta Gipuzkoerea banatzea neolitiko edo arri-barri aroa baiño lenagokoa da, M. Lekuona´k esan eban lez. Or etorri ziran indoeuropearrak eta onein ondorena dira lapurdiera(ostegum) ortziaren egun eta eguen edo zeruaren egun.

Alde orretatik datoz beste leienda batzuk:Azia ereitearen leiendea,lenengo ogia egin zanekoa, lanabes barrien sorrerakoa, eztia batzearena, oillarra agertzearena, errementarien sorrerea eta San Martin Txiki, metalak alkartzearen edo soldaduraren leiendea, zulobageko aizkorearena, lenengo auspoarena, erromatarrenn zubietako leiendak (Nikolasak) eta kristiñautzearen etorrerea ta olentzero...

Eromatarrak ona urreratu ziranean, leiñuak aurkitu ebezan:Ilerjeteak,bezetarrak,akitaniarrak,baskoiak,barduloak, karistioak eta autrigoiak, guztiak Auñamendi ta onen alde bietan. Ondorenak arrietan idatzita itzi ebezan akitaniarrak, uririk aundienak or egozalako. Idazki orreitan Jainkoak agertzen dira: Aherbelts, Aberri, Lurgorri, Leheren, Baigoritxo, Iturbe, Andereixo, Arixo, Astoillun, Garr, Baeserte, Larraron eta abar, eta izen arruntak be bai: andere,neskato,sembe,cison , belasko eta abar.

Beste lurraldeetan ez dira agiri, baserriak diralako, baiña Bilbao´tik Jaka´ra bitartean oneik aurkitu dira:Vinburu,Ballisto,Losaee,Lakubegi, Umesaar Selatsa,Usece,Heraus Corritseche ta abar. Eta geiago be agertuko dira.

Erromatarrak Euskalerriaren barruan uri oneik aitatzen dabez: Cascante, Tudela, Lodosa.Andosilla, Cornago,Calahorra, Alfaro, Arakil, Oyartzun, Garazi, Pamplona, Santacara, Jaka, Egea,Mallen. Danak gaur Naparroa´ko euskerearena dan arloan.

Laster asi ziran erromatarrak euskal lurrak eurakanatzen sortaldetik sartalderantz, batez be uriak egozan tokietan, esaterako Akitania´n eta Ibero ibaiaren inguruetan baiña ez ziran eldu Gallego ibaitik Ibaizabal´era astirik emon ez eutselako. Menendez Pidal´en ustez muga izan eben lerroa Lerida, Barbastro eta Oska dira.

Ez dogu aiztu bear Iruña-Beleian egiten dirduen azterketa. Onek asko aldatuko dauz gure jakingarriak.

Etorri ziran germaniarrak (409´tik aurrera) baiña V-IX gizaldietan uri askotan egiten da euskeraz edo lateragaz batera elebitasunean. Oska´n luzaro iraun ebala euskereak (XVII gizaldira arte, jakiña da Dax´en eta Iruña´n XIX gizaldira arte iraun ebala euskereak.

Godoen eta frankoen aurka ekin eben euskaldunak baskoien eta akitaniarren dukea buru ebela

Chanson de Sainte Foi" liburuak diño santa au erail ebela euskaldunak Aran Ibarrean.

Ibero ibaiari III gizaldian "euskaldunen ibaia, deritxe.

Dana dala,bisigotak Ibero ibaiaren ingurua eta frankoak Garona´ren ingurua kendu euskuezan. Gero musulmanak alde batetik eta Asturias eta Leon´darrak bestetik jarraitu eben euskaldunen aurkako joko ori.

Corominas´ek baieztatu dauan lez,Aragoi´k euskaldun jarraitu eban, toki-izenak % 67 euskaldunak diralako Jaka-inguruan eta % 38 Sobrarbe´n.

824n. urtetik aurrera Naparroa´ko erreiñuak batu ebazan euskal leiñuak eta erregeak esaten eban berak agintzen dauala Iruña´n, Araba´n, Gipuzkoa´n, Bizkaia´n, Naxera´n eta Muskaria´n. Au Santxo Aundiak osotu eban, baiña gazkuña ta Toulouse barru dirala.

OLAZAR´tar Martin´ek

MIO ZID



Mio Zid: Santa Gadea'ko ziña

Laterrien sorreran beti aurkitzen dogu epika-tankerako poema edo olerki bat:Alemania´n Nibelungo´ak, Irlanda´en Eskozia´n Osian´en poemak... eta España sortu baiño lenago Mio Cid deritxon poema ederra dauke.

Mio Zid Euskalerriaren mugan jaio zan, Burgos´en iparraldean eta an orduan erriak euskeraz egiten eban berba. Izatez euskaldunen antzeko jokabidea da Mio Zid´en San Gadea´ko ziña eskatu izatea.Ziur-asko berak ba-ekian euskeraz berba egiten.

Antzera jazoten da lenagokoa dan Fernan Gonzalez´en Olerkiagaz. Fernan Gonzalez konde au euskalduna zan eta bere olerkian be euskerazko berbak ugari agertzen dira. Gonzalo de Berzeo be euskalduna zan eta "bon vino"ren truke "buena prosa" egin arren, euskeraz berbak ugari erabilten dauz, Bermeo´ko lebatza goratuz batera.

Olako berba batzuk aldatu egiten dabez eta itxura galtzen dabe, esaterako "Miatxa Ordonio" mi aita Ordonio da eta "Minaia" idazten dabenean mi anaia esan nai dabe. Iñoz berbak argi be agertzen dira, esaterako Bertzeo´k "beldur"

Gaiñera idazki orreitan agertzen dan joskerea euskeratik artu da, gero ber-jaiotza aldian nastatu ebena. Eurak euskereak berea dauan joskera parasintaktikoa darabille. Ona emen adibide bat: "Mio Cid estaba en San Pedro de Cardeña y abrazó a Doña Jimena y atravesó la reseca tierra de Castilla y llegó a Valencia." Gero ber-jaiotzan jazorikoa ulertzeko ona emen euskerearen joskerea ez daukan adibidea: "Mio Cid en San Pedro de Cardeña, después de abrazar a Dª Jimena y habiendo atravesado las tierras castellana, llegó a Valencia". Au jostera iposintaktikoa da eta euskereari ez dagokio.

Gastelereak bost bokal naiko ondo zeaztuak baiño ez daukoz eta latiñak eta latinkumeak geiago daukez. Bost baiño ez eukite ori euskereari zor dautso Menendez Pidal izkuntzalari aundiak diñoan lez

OLAZAR´tar Martin´ek

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º de
48001 BILBA
200 pezeta (1,20 e

BBK txartel

BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein BBK txartelekin eta, hilero itzelezko opariak irabazi ahal izango dituzu.

bbk

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es